

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Proiektu pedagogiko baten bidez heriotza prozesu natural gisa ikusten erakutsiko diete ikasle nafarrei

San Juan de Dios Ospitaleak eta Hezkuntza Departamentuak sustaturiko ekimena da, eta zainketa aringarrietan eta atsekabeen adituak direnek eskainiko dute.

Jueves, 26 de diciembre de 2013

Hezkuntza departamentuak eta Iruñeko San Juan de Dios Ospitaleak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Nafarroako ikastetxeetan proiektu pedagogiko bat gauzatzeko. Proiektuaren helburua heriotzaren inguruko gogoeta egitea eta bizitzaren amaiera prozesu natural baten gisa azaltzea da. Testua aste honetan sinatu dute José Iribas Hezkuntza kontseilariak eta Patricia Segura osasun-zentroko zuzendari kudeatzaileak.



Ezkerretik eskuinera, Patricia Segura eta José Iribas.

Sé+ izeneko programa interesa duten ikastetxe publikoetan eskainiko dute zainketa aringarrietan eta atsekabea artatzen jarduten diren San Juan de Dios Ospitaleko profesional eta boluntarioek, medikuntzaren, erizaintzaren eta psikologiaren arloak uztartuta.

Ekimenaren helburua heriotzarekin loturiko guztia isilean gordetzearen joera sozialari aurre egitea da. Heriotzaren pedagogia egiteak, sinesmen edo sinesbide erlijioso jakin batekin lotu gabe, ikasleen gaitasunak hobetzen ditu, bai norberaren hurbilekoen heriotzari aurre egiteko, bai besteei sufrimendu horretan lagun egiteko. Hala, errealitate horretara gerturatzeko modua aldatzen da.

Proiektuan Nafarroako ikastetxe publiko zein itunduek parte har dezakete, hala eskatuz gero. Iragan ikasturtean Iruñeko Basoko BHI eta Liceo Monjardín ikastetxeetan jarduera pilotuak gauzatu ziren, eta emaitza onak izan zituen. Hori dela-eta, proiektua formalizatu eta hedatu egin da.

Hitzarmenak urtebeteko iraupena du, unean uneko ikasturtearekin bat dator, eta ez dio gasturik eragiten Hezkuntza Departamentuari. Departamentuaren konpromisoak eskura dituen bitartekoen bidez proiektuaren berri ematea, parte hartzen duten ikastetxeen baliabide teknologikoak uztea eta proiektuko edukiak garatzeko interesa duten irakasleak trebatzea dira. San Juan de Dios